

## BESTELAKO XEDAPENAK

### INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

## 2797

*AGINDUA, 2013ko ekainaren 5ekoa, Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburuarena, zeinen bidez egiten baita ondare naturala aktiboki kontserbatzeko jarduerak –zaintzailtza-akordioetan barne hartutakoak– finantzatzeko laguntzen 2013rako deialdia, EA Eren lurralde-eremuan.*

Autonomia Estatutuaren 11.1 artikulua Euskal Autonomia Erkidegoari ematen dio ingurumeneren eta ekologiaren arloko Estatuko oinarritzako legeriaren burutzapena garatzeko eskumena.

Aipatutako eskumena Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak gauzatzen du, betiere Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien funtzioak eta jardun-arloak finkatzeko lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuaren 13.1.e) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Eusko Jaurlaritzak, 2011ko uztailaren 12an egindako bileran, hau onartu zuen, besteak beste: «Euskal Autonomia Erkidegoko III. Ingurumen Esparru Programa 2011-2014». Helburuak: aniztasun biologikoaren galera gerarazteko helburu estrategikoa, ekosistemak berrezartzea eta zoruaren artifizializazioa mugatzea; horiek 5 helburu operatibotan eta 9 jardun-lerrotan banatzen dira, horien artean, lurraldearen zaintzailtza sustatzea jasotzen da.

Euskal Herriko Ingurumen Babes Orokorrerako 3/1998 Legeak gai honi buruzko aurreikuspen zehatzik egiten ez badu ere, bertan dio eremu egonkor bat eratzeko duela, zeinetan lekua baitute programak indarrean dirauen espazioan eta denboran biltzen diren eragile pribatuen jarduerak eta gobernu ezberdinen politikek, eta zeinek legeak ezartzen dituen helburuak lortzeko parte hartzeko ahala eta beharra baitute.

Bestalde, ondare naturalari eta biodibertsitateari buruzko 42/2007 Estatuko Legeak zaintzailtza-akordioak aurreikusten ditu bere mekanismoen artean, eta, ezartzen duenez, Herri Administrazioek zaintzailtza-akordioak sustatuko dituzte zaintzailtza-erakunde eta jabego publiko zein pribatuko lur-jabeen artean, ondare naturala eta biodibertsitatea kontserbatzeko.

Azken aldian, ondare naturala kontserbatzeko bide eta tresna berriak sortzen ari dira, biodibertsitatea kontserbatzeko lur-zaintzailtza-akordioaren mekanismoa, esaterako. Tresna horren beste helburu garrantzitsu bat da bestelako eragileen parte-hartzea sustatzea biodibertsitatea kontserbatzeko (jabeak, gizarte zibila antolatua, herritarrak edota enpresa pribatuak).

Lur-zaintzailtzak borondatezko akordioaren forma hartzen du, lurren jabe edo erabiltzaileen edota baliabide naturalen aprobetxamendu- edo erabilera-eskubideen jabeen titularren eta zaintzailtza-erakundearen artekoa. Hauek ezarri behar dira: indarrean izango den aldia, ondare naturala aktiboki kontserbatzeko egingo diren jarduerak, jarraipen- eta aholku-mekanismoak, eta baita laguntza tekniko eta finantzarioa ere.

Lur-zaintzailtza akordio baten xede diren finkak jabego pribatukoak izan daitezke, edo udalen herri-lurrak, enpresen jabetzakoak, edota izan daitezke ere baliabide naturalen aprobetxamenduaren gaineko eskubideak dituzten lurrak, haien titulartasuna gora behera. Zaintzailtza erakundeak honako hauek dira: ondare naturalaren kontserbazioan diharduten erakundeak, auzo-elkarteak, eragile sozialak, fundazioak, eta abar, betiere irabazi-asmorik gabeak; horien helburuen artean, gainera, biodibertsitatea kontserbatzeko ekintzak burutzea egon behar du.

Horrela, agindu honen bidez, diru-laguntza eman nahi zaie biodibertsitatea kontserbatzea helburu duten jarduketei, eta, horretarako, diru-laguntzak ematen dira aktiboki kontserbatzeko jarduerak burutzeko –lur-zaintzailtza akordioetan barne direnak.

Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuak ematen didan eskumenaz baliatuz, hau

#### XEDATZEN DUT:

##### 1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da ondare naturala kontserbatzeko jarduerak –zaintzailtza-akordioetan barne hartutakoak– finantzatzeko laguntzen 2013rako deialdia egitea, EAEren lurralde-eremuan.

2.– Deialdi honen ondorioetarako, lur-zaintzailtza akordioa hauxe da: lurren jabeak eta/edo erabiltzaileak biodibertsitatearen eta haren elementuen kontserbazio eta erabilera erakartzeko teknika edo estrategia juridikoen multzoa. Hori guztia borondatezko akordioaren bidez egiten da, lurren jabeen edo erabiltzaileen edota baliabide naturalen aprobetxamendu- edo erabilera- eskubideen titularren eta zaintzailtza-erakundeen artekoa.

Lur-zaintzailtza akordioek diru-laguntza eskaera aurkezteko epea amaitu baino lehen eginda izan beharko dute, eta honako hau jasoko dute: kideen edota parte hatzen duten erakundeen identifikazioa, iraupen epea, eta agindu honen I. eranskinean ezartzen denarekin bat datozen egin beharreko jarduerak.

3.– Zaintzailtza-akordioetan, gutxienez bi ekintza izan behar dira: bata, I.A.1. eranskinekoa, eta, bestea, I.A.2 eranskinekoa –biak agindu honetakoak–. Gainera, jarraipen- eta aholkularitza-mekanismoak, eta baita aurreikusitako zabalitze-ekintzak eta laguntza tekniko eta finantzarioa ere izan behar ditu.

##### 2. artikulua.– Laguntzen izaera, zenbatekoa eta bateragarritasuna.

1.– Agindu honen arabera emandako laguntzak ez dira itzuli behar diren horietarikoak.

2.– Diru-laguntzaren zenbatekoa ez da izango diruz lagungarri den gastuaren % 100.

3.– Irabazi-asmorik gabeko erakunde bakoitzari gehienez bi jarduerarako eman ahal izango zaio diru-laguntza, eta proiektu bakoitzarentzat eskatutako diru-laguntzaren zenbatekoa ez da 20.000 euro baino gehiagokoa izango.

4.– Agindu honetan jasotako diru-laguntzen emakida bateragarri izango da helburu bera izan eta beste edozein erakunde publikok edo pribatuk eman ditzakeen diru-laguntza guztiekin, baldin eta horrek gehiegizko finantziatorik ez badakar. Hori gertatuz gero, diru-laguntzaren zenbatekoa kasuan kasuko gehieneko mugaraino murriztuko da.

Egoera hori IV. eranskinean ezarritako ereduaren arabera jakinaraziko da.

##### 3. artikulua.– Diru-baliabideak.

1.– Agindu honen helburua betetzeko diru-baliabideak Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan xede horretarako berariaz ezarriko diren aurrekontu-kredituetatik hartuko dira.

2.– Helburu horretarako 200.000 euro bideratuko dira gehienez.

3.– Emango diren laguntzen bolumen osoa ez da zuzkidura horretatik edo berori emendatzearen ondoriozko zuzkiduratik gorakoa izango, baldin eta Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren beste laguntza-programa batzuk betearaztearen ondoriozko edo indarreko legeriaren arabera onesteko moduko aurrekontu-aldaketen ondoriozko agortu gabeko aurrekontu-erabilgarritasunik badago, eta, betiere, diru-laguntzak ebatzi baino lehen.

4.– Emendatze hori gertatuz gero, agindu honetan ezarritako diru-laguntzak emateko prozedura ebatzi baino lehenagokoa izan beharko da, eta horren berri emango da, Ingurumeneko sailburuordearen ebazpenaren bitartez.

#### 4. artikulua.– Onuradunak.

1.– Agindu honetan jasotako diru-laguntzen onuradun izan daitezke irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuak, lur-zaintzailtzako erakunde bezala aritzen direnean, baldin eta agindu honetan zehazten diren jarduerak eta jarduketak EAEren eremuan egiten badituzte.

2.– Agindu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, lur-zaintzailtzako erakundetzat hartuko da estatutuetan berariaz jasotzen duena Ondare Naturala kontserbatzen jarduten duela.

#### 5. artikulua.– Jarduera eta jarduketa finantzarriak eta gastu finantzarriak.

1.– Agindu honetan jasotako diru-laguntzetara atxiki ahal izango dira I. eranskinean zehazten diren eta eskatzaileek gauzatzen dituzten jarduerak eta jarduketak, zeinak agindu honen 1. artikuluko baldintzak betetzen dituzten lur-zaintzailtza akordioetan barne hartu baitira. Jarduketa horiek EAEko lurralde eremuan burutu behar dira.

2.– Lur-zaintzailtza akordioaren barne, agindu honen pean, diru-laguntza jaso dezaketen jarduketak 2013ko ekitaldian egin direnak baino ez dira izango; betiere, 2013ko abenduaren 31 baino lehen gauzatu eta bukatu behar dira.

3.– Agindu honetan jasotako araubidearen babesean diru-laguntza jaso dezaketen gastuak honako hauek izango dira: eskatzaileak aurkezturiko jarduketaren aurrekontu xehatuan jaso eta hori betearazteari argiki lotuta daudenak.

4.– Ez dira diruz lagungarri izango edozein obra edo proiektu mota burutzetik eratorritako konserbazioko edo berrezartzeko proiektuak edo jarduketak, neurri zuzentzaile edo konpentsatzaile gisa ezarritakoak.

5.– Eskatzaileak V. eranskinaren ereduaren arabera aurkezturiko aurrekontuan, diru-laguntza jaso ezin duten gastuak jasoko balira (artikulu honetan ezarritakoaren arabera), Balorazio Batzordeak horiek ezabatu edo araztu egingo ditu, diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko oinarritzat balioko duen aurrekontua (diru-laguntza jaso dezaketen gastuen aurrekontua) zehazteko.

#### 6. artikulua.– Baldintzak.

Eskatzaileak, agindu honetan ezarritako diru-laguntzen onuradun izateko, honako baldintza hauek betetzen dituela egiaztatu beharko du:

a) Pertsona juridiko pribatua izatea, betiere irabazi asmotik gabekoa.

b) Erakundeak egiaztatu beharko du estatutuetan jasotzen dela bere helburuen artean ondare naturala kontserbatzea dagoela eta bere jardueren erdiak baino gehiagok ondare naturala kontserbatzearekin zerikusia dutela.

c) Jarduera edo jarduketa diruz lagungarria EAEan gauzatzea.

d) Zigor edo administrazio-zehapen baten ondorioz, diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera ez galdua izatea eta horretarako gaitasuna kentzen duen legezko debekuren bat ez izatea.

e) Zerga-betebehar guztiak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta edukitzea.

7. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea eta tokia.

1.– Eskabideak hilabeteko epean aurkeztu behar dira, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, Zuzenean-Herritarrekiko harrera emateko puntuetan (informazioa 012 telefonoan edota [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)-en), Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzan (Donostia kalea 1; 01010 Vitoria-Gasteiz), sail horren lurralde-ordezkaritzetan edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako lekuetan. Eskabideekin batera, hurrengo artikuluan aipaturiko dokumentazioa ere aurkeztu beharko da.

2.– Norberaren Datuak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, eskatzaileei jakitera ematen zaie aurkezten dituzten datuak biltzeko erabiliko den fitxategiaren helburua izango dela diru-laguntzetarako deialdi hau eta arloari loturiko gainerako administrazio-espeditente guztiak kudeatzea. Fitxategiaren arduraduna Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza da, eta bertan gauzatuko dira lortze, zuzentze, amaitze eta aurkatzeko eskubideak; horretarako, Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Zerbitzu Zuzendaritzara jo beharko da (Donostia kalea 1; 01010 Vitoria-Gasteiz).

8. artikulua.– Agiriak.

1.– Eskabideak agindu honen II. eranskinean biltzen den eredu arautuaren bidez gauzatuko dira, eta agiri hauek erantsi beharko dira:

a) Eskatzailearen NANA eta ordezkatzeko-ahalordearen kopia.

– Identifikazio fiskaleko agiriaren kopia.

– Erakundearen estatutuen kopia eta baita haien aldaketarena ere.

– 2012ko jardueren memoriaren kopia, erakundeak onartua.

– Irabazi asmorik gabeko erakundea dela adierazteko: beraien xedearen definizioa edota beraien xedea egiaztatzen duen beste edozein agiriren kopia.

b) Azalpen-memoria. Bertan hauek zehatz adieraziko dira: zaintzailera-akordioaren edukia (kopia bat erantsiko da), akordioaren iraupena, helburuak, plana eta jarduketa lekuaren mugaketa, epeak, jarduketan helmena eta garapena, jardueraren aurrekontu osoa –V. eranskinaren arabera, zatika xehatua– eta jarduketan burutzapen-egutegia.

c) Bidezkoa denean, udalaren hirigintza-lizentzia, eta, behar denean, administrazio sektorial eskudunaren manuzko baimen eta lizentziak.

d) Beste pertsona edo erakunde batzuek helburu horretarako eskatutako edota emandako beste diru-laguntza batzuen zenbatekoaren adierazpena (IV. eranskina).

e) Dagokion ogasunaren ziurtagiri eguneratua, zerga-betebeharrak bete dituela adieraziz, eta dagokion lurralde-diruzaintzaren ziurtapen eguneratua, Gizarte-Segurantzarekiko betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duena.

Agiriak paperezko euskarrian (jatorrizkoak edo kopia egiaztatuak) eta Eusko Jaurlaritzaren sistema informatikoekin bateragarria den euskarri informatikoan aurkeztu beharko dira.

9. artikulua.– Aurkeztutako eskabidean egindako akatsak zuzentzea.

Eskabidea jaso ondoren, ikusten bada aurreko artikuluetan ezarritako baldintzak ez dituela betetzen, edo diruz laguntzeko jarduketa hobeto ezagutzeko dokumentazio osagarria behar dela irizten bada, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak eskatuko dio eska-tzaileari hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo manuzko agiriak aurkezteko; hori egin ezean, eskabidea ez da onartuko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluan ezarritakoaren araberaren emango den ebazpenaren bidez.

10. artikulua.– Diru-laguntzak kudeatzeko ardura duen organoa.

Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak egingo ditu deialdi honetan aurreikusitako laguntzen kudeaketa-lanak.

11. artikulua.– Balorazio-batzordea.

1.– Aurkezturiko eskabideak aztertzeko, ebaluatzeko eta aukeratzeko, Balorazio Batzordea osatuko da, eta honako kide hauek osatuko dute:

a) Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendaria.

b) Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzara atxikitako teknikari bi, eta horietariko batek idazkari gisa jardungo du.

Proposamenak ebaluatzeko ondare naturalaren kontserbazioan diharduten beste teknikari edota aditu batzuen iritzia jaso ahal izango da.

2.– Eskabideak ebaluatu ondoren, Batzordeak Ingurumeneko sailburuordeari bidaliko dio ebazpen-proposamena; horrek, hurrengo artikuluan adierazitako esleipen-irizpideetara eta aurrekontu-mugetara egokituta, diru-laguntza jaso dezaketen proiektuak eta diru-laguntza horren zenbatekoa adieraziko ditu; gainera, onuraduntzat proposaturikoak ere zehaztuko ditu. Era berean, haren ustez baztertu beharko lirakekeen proiektuak eta horren zergatia ere adieraziko ditu.

12. artikulua.– Diru-laguntzak emateko eta kuantifikatzeko prozedura.

1.– Agindu honetako laguntzak lehiaketa prozeduraren bidez emango dira, Euskadiko Ogasun Nagusien Antolamenduko Printzipioei buruzko Legearen Testu Bateginaren 51.4 artikuluan ezarritakoaren arabera (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onetsitako Legea). Proiektuak baloratzeko fasean kalifikazio-epaimahaiak emandako puntuazioa kontuan hartuta egingo da.

2.– Horri dagokionez, diru-laguntzak emateko, jarraian adierazten diren baldintzak eskabidean betetzen diren baloratuko da. Gehienez ere ehun (100) puntu lor daitezke, irizpide hauen arabera banatuta:

a) Jarduera burutzeko eremua, gehienez 35 puntu:

– Natura 2000 Sareako eremuetan kokatutako lursailak (35 puntu).

– Babestutako Espazio Naturaletan kokatutako lursailak (30 puntu).

– EAEko hezeguneetako LPSko II. eta III. taldeetako hezeguneetan diren lursailak (gehienez 25 puntu).

– Aurreko ataletan barne hartu gabeko lurrak, baina Batasuneko intereseko flora eta fauna basatiko espezieak dituztenak, hegaztien eta habitat Zuzentarauaren eranskinean direnak edo flora eta fauna basati mehatxatuen euskal katalogoan direnak (gehienez 20 puntu).

Jarduketa-eremu berean sailkapen ezberdinak baleude, puntuazio gehienari dagokiona baloratu da.

b) Lur-zaintzailatza akordioaren denbora: puntu 1 emango da akordioak irauten duen urte bakoitzeko (gehienez 20 puntu).

c) Proposaturiko ekintzek ondare naturala kontserbatzeko duten ahalmena (gehienez 45 puntu):

– Egitasmoaren kalitate teknikoa eta bideragarritasuna, ondare naturala eta paisaia kontserbatu, berrezarri eta hobetzeari egiten dion ekarpena arabera (gehienez 30 puntu).

– Jarraipen-plangintzaren kalitate teknikoa eta proiektzioa (gehienez 10 puntu).

– Komunikazio- eta zabalkunde-jarduerak gizartean duten eraginaren ahalmena (gehienez 5 puntu).

3.– Artikulu honen 2. paragrafoan jasotako balorazio-irizpideei jarraituz eskabideen lehentasun-ordena ezarri ondoren, laguntzak puntuazio-hurrenkerari jarraituz esleituko dira, agindu honen 3. artikuluan ezarritako diru-kopurua agortu arte.

4.– Balorazioan, orotara berrogeita hamar (50) puntu baino gutxiago lortzen dituzten eskabideak ez dira diruz lagunduko. Agindu honetan ezarritako prozedurari amaiera ematen dion ebazpenean, hala badagokio, aipatutako gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik diru-laguntzarik gabe geratu diren proiektuen zerrenda jasoko da.

5.– Erakunde bakoitzak bi proiektu aurkeztu ahal izango ditu gehienez, eta proiektu bakoitzak helburu bat izango du.

6.– Ebazpen-proposamenean, erakunde onuradunen zerrenda eta diruz lagunduko diren proiektuen eta, orobat, emandako zenbatekoen zerrenda jasotzeaz gain, ordezkari erakundearen zerrenda ere jasoko da, onuradunen batek uko eginez gero, ordezkoengana jo ahal izateko –balorazioan, 50 puntu edo gehiago jaso badute, betiere. Erakunde horiei dagokienez, ordezkari egiteko hurrenkeraren arabera zerrendatuak, proiektuak adieraziko dira eta onuradunak uko eginez gero ordezkoaren laguntzak izan lezakeen gehieneko zenbatekoa azalduko da; nolana ere, zenbateko hori ez da sekula ere izango aurrekontuetan onartutakoa baino handiagoa.

13. artikulua.– Ebazpena, errekurtsoak, ebazteko eta jakinarazteko epeak, jakinarazteko modua eta publizitate-prozedura.

1.– Aurkezturiko eskabideak prozedura bakarrean izapidetuko dira; hori, interesdunak planteaturiko gai guztiak erabakita, Ingurumeneko sailburuordeak ebatziko du.

2.– Ebazpenaren arabera, eman edo hala balegokio, ukatu edo kanporatu egingo dira agindu honetan ezarritako laguntzak; ematen badira, zuzkidura, diru-laguntza jaso duen proiektua (diru-laguntza jaso dezakeen jarduketaren kopurua adierazita) adieraziko dira. Baztertzen badira, horren zergatia adieraziko da.

3.– Aurreko paragrafoan aipatutako ebazpenak ez dio administrazio-bideari amaierarik ematen; izan ere, ebazpen horren aurka, interesdunek gorako errekurtsioa jarri ahal izango diote Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuari; hilabeteko epea izango dute horretarako, jakinarazpena egin eta biharamunetik hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

4.– Hartzen den ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie. Gainera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, horren berri denek izan dezaten.

5.– Prozedura ebazteko eta ebatzitakoa interesdunei jakinarazteko gehieneko epea hiru hila-betekoa izango da, agindu hau argitaratu eta biharamunetik hasita; epe hori igaro eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ebazpenik argitaratu ez bada, interesdunek diru-laguntzetarako eskabidea ezetsi egin zaiela ulertu ahal izango dute, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

6.– Agindu honetan jasotako laguntzak onuradunei emateko eta ordaintzeko, ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiak eta horren organo autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen eremuan hasitako edozein itzulketa- edo zehapen-prozedura amaituta egotea.

14. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Onuradunek honako betebeharrak hauek izango dituzte, eta, denak edo baten bat bete ezean, agindu honen 19. artikuluan den prozedura ezarriko da:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Horretarako, diru-laguntzaren esleipena EHAA-n argitaratzen den egunetik aurrera, hamabost eguneko epean onuradunek berariaz eta idatziz diru-laguntzari uko egiten ez badiote, onartu egin dutela ulertuko da.

b) Laguntzaren edo diru-laguntzaren helburua betetzea.

c) Laguntza edo diru-laguntza jaso duen proiektua gauzatzea.

d) Laguntza edo diru-laguntza ematearen ondorioz ezarritako baldintzak betetzea.

e) Eskakizunak eta baldintzak betetzen direla justifikatzea, eta jarduera burutu dela eta helburua bete dela ere justifikatzea, diru-laguntzaren emakida edo gozamina horren arabera baita. Horretarako dagokion memoria aurkeztu beharko da.

f) Lehendik altan emanda ez badago, hirugarrenen alta ematea eskatzea, III. eranskinaren arabera.

g) Organo emaileak egin beharreko egiaztapen-jarduketak onartzea, baita Kontrol Ekonomikoaren Bulegoak egin beharreko finantzako eta kudeaketako gainerako egiaztapen- eta kontrol-jarduketa guztiak onartzea ere, eta Kontu Publikoen Euskadiko Auzitegiaren araudi berezian ezarritako guztiak ere bai.

h) Aurreko paragrafoan aipaturikoei laguntzea, egiaztapen- eta kontrol-jarduketaren garapenean, jarduketa horietarako eskatzen den informazio guztia emanez; horretarako, hauxe erraztuko da:

– Sarbide librea egiaztatutako beharreko agiriak, informatika-euskarria duten programak eta artxi-boak barne.

– Sarbide librea diruz lagundutako jarduera gauzaten den lekuetara, edo laguntzaren edo diru-laguntzaren kontura finantzaturiko eragiketen errealitatea eta erregulartasuna egiaztatzeko aukera.

– Fakturak, agiri baliokideak edo ordezkioak eta eragiketei buruzko beste edozein agiri atxikitzea edo kopia eskuratzea, horietan laguntza edo diru-laguntza ez dela zuzen lortu, gozatu edo bideratu dela ondorioztatuz gero.

– Sarbide librea laguntzak edo diru-laguntzak kobratzeko edo fondo-hornidurak egiteko finantza-erakundeen kontuetan dagoen informaziora.

i) Jasotako fondoaren aplikazioa justifikatzen duten agiriak gorde egingo dira, agiri elektronikoak barne, harik eta horren inguruko egiaztapeneko eta kontroleko jarduketak egin ahal izan arte.

j) Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintza-ren Zuzendaritzari jakitera emango zaizkio helburu bererako emandako bestelako laguntza edo diru-laguntzak lortu izana (finantzakoak eta materialak), laguntza horien organo-emailea eta zenbatekoa, edozein administraziok edo erakunde publikok nahiz pribatuk emanak izanik ere; hamar egun balioduneko epea egongo da horretarako, horren berri izan eta biharamunetik hasita.

k) Organo horri, bestalde, diru-laguntza emateko aintzat harturiko edozein inguruabar objektiboren edo subjektiboren aldaketa jakinaraziko zaio, aurreko paragrafoan adierazitako epean.

l) Jasotako fondoak, edo gauzaturiko jarduketarako nahiz jarduerarako emandako diru-laguntzaren kostuaren gaineko soberakina itzuli egingo dira, Euskadiko Ogasun Nagusiko Antolaketa Printzipioei buruzko Legeko Testu Bateginaren 53. artikuluan jasotako kasuetan.

m) Jarduerak sorrarazitako dokumentu orotan, eta baita iragarki guztietan ere, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren babesletzari buruzko aipamen bat sartu beharko da Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunari buruzko araudian xedatutakoaren arabera ([http://www.euskadi.net/id\\_corporativa/indice\\_c.htm](http://www.euskadi.net/id_corporativa/indice_c.htm)).

n) Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren esku uztea aurkeztutako dokumentazioan dagoen informazio tekniko eta grafikoa erabiltzeko eskubidea, doan eta eskusibotasunik gabe, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren informazio-sistemetan erabili eta sartzeko eta zabalkunderako edo/eta argitaratzeko, eta bai honako hauetan argitaratu eta hedatzeko ere: edozein hedabide eta formatu bibliografikotan, ikus-entzunezkotan, informatikotan zein teknikak ahalbidetzen duen orotan.

o) Hedapen-euskarrietan ezin izango da hizkuntza edo irudi sexistarik erabili (Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen 3. artikulua), baldin eta jardueretarako publizitatea edo material didaktikoak egiten badira. Zuzenean sortzen dituzten dokumentuetan ere hizkuntzak inklusiboa izan beharko du.

p) Erakunde onuradunek bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dituzte nahitaez diruz lagundutako jarduerak argitaratzean, iragartzean eta horiei buruzko publizitatea egitean.

15. artikulua.– Emandako laguntzaren zenbatekoa aldatzea.

1.– Baldin eta jarduketaren behin betiko kostua txikiagoa bada laguntza ematean aurreikusitako aurrekontuan jasotakoa baino, emandako diru-laguntzaren zenbatekoari behar den ehuneko murriztuko zaio. Orduan, diru-laguntzaren zenbatekoa oinarri berrian aplikatuko da.

2.– Aldiz, hasieran aurkeztutako aurrekontuaren zenbatekoa handitzen bada, ebazpen-proposamenaren fasera iritsi aurretik soilik sartu ahal izango da prozeduran. Gorantz zuzendutako aurrekontu bat geroago aurkezteak (jarduketa-kostuetan izandako hazkundeak kontuan hartzeko) ez du emandako laguntzaren hazkunderik eragingo, eta hurrengo artikulua ondoeetarako baino ez da aintzat hartuko.

#### 16. artikulua.– Proiektuak aldatzea.

1.– Hasieran ezarritako eta ebazpenaren bidez onartutako gastuei edo jarduketei dagokienez, egin nahi den edozein aldaketa jarduketa egin orduko eskatu beharko da, eta Ingurumeneko sailburuordearen berariazko onarpena beharko du.

2.– Aldaketak ez du inolaz ere eraginik izango jarduketaren izaeran.

3.– Organo eskudunak onartu egin dezake aurkezturiko justifikazioa, baldin eta diru-laguntzaren onuradunak justifikazioan agerian uzten badu emakidarako aintzat hartutako baldintzetan aldaketak egon direla eta aldaketa horiek ebazpena aldatuko zutela, Euskadiko Ogasun Orokorraren Antolaketa Printzipioei buruzko Legearen Testu Bateginaren 49.12 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta ez bada bete onespenerako aurretzako administrazio-baimenaren izapidetzea, betiere hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez bazaie.

4.– Organo-emaeleak egiaztapen-egintzan aldaketak onartzeak ez du onuraduna salbuesten izan litzakeen zehapenetatik.

#### 17. artikulua.– Justifikazioa, likidazioa eta ordainketa.

1.– Ematen den diru-laguntzen ordainketa bi alditan egingo da: % 50, diru-laguntza ematen denean, eta, gainerako % 50a, diru-laguntza jaso duen jarduketa benetan egin dela, helburua egokitzen dela eta kostua lehendik adierazitakoa dela egiaztatu ondoren.

2.– Onuradunek, aurreko atalean aipaturiko eskabidearekin batera, jarduketaren kostu osoan egiaztagiria aurkeztuko dute, kostu hori egiaztatzen duten fakturak edo beste ziurtagiri batzuk erabiliz (jatorrizkoak eta kopiak, gero jatorrizkoak itzuli egingo dira). 2014ko urtarrilaren 31 baino lehenago aurkeztu behar da aipatutako dokumentazioa.

3.– Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak, ikuskapen horren egiaztapenetan nahiz emaitzetan eta aurkezturiko dokumentazioan oinarrituz, likidatu egingo du diru-laguntza, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendariaren bidezko ebazpenaren bidez.

4.– Halaber, ordainketa izapidetzen ari den garaian, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan emandako diru-laguntzetakoren bat eskuratu dutenek zerga-mailako obligazioak bete dituztela egiaztatzeari buruz Ogasun eta Finantzetako sailburuak 1991ko urriaren 7an emandako Aginduan ezarritako egoeretakoren bat gertatzen denean, orduan, Agindu hone-tako 6. artikulua d) idatzi-zatian ezarritako eran egingo da egiaztapena.

#### 18. artikulua.– Diru-laguntzak jasotzeko baldintzak aldatzea.

Diru-laguntza emateko aintzat harturiko baldintzak aldatuz gero, diru-laguntzaren helburua bete dela irizten bada, eta beste edozein erakunde publikoren edo pribaturen diru-laguntzak nahiz laguntzak lortuz gero, aldatu egin daiteke diru-laguntza emateko ebazpena, baldin eta agindu honetan diru-laguntzaren jasotzailea izateko ezarritako baldintzak betetzen badira. Ondorio horietarako, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren sailburuordeak dagokion ordainketa-ebazpena emango du; ebazpen horretan, emandako diru-laguntzaren kopurua doitu egingo da, edota, hala dagokionean, jasotako gehiegizko diru-kopurua itzultzeko eskatuko da.

#### 19. artikulua.– Ez-betetzeak.

Laguntzen onuradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Printzipioei buruzko Legeko Testu Bateginaren 53.1 artikuluan ezarritako kasuetarikoren batean sartzen badira (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsitako Testu Bategina), edo agindu honetan, gainerako arau aplikagarrietan nahiz emakida-ebazpenean ezarritako edozein baldintza urratzen badute, Ingurumeneko sailburuordeak gainerako zenbatekoak jasotzeko eskubidearen galera adieraziko du, interesdunari bidezko entzunaldia egin ondoren, eta gainera, jasotako zenbatekoak eta horien legezko interesak Euskadiko Altxortegi Nagusira itzuli beharra ere ezarriko du, hargatik eragotzi gabe bidezko gainerako ekintza guztiak, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera. Zenbateko horiek diru-sarrerara publikotzat hartuko dira, legezko ondoretarako, eta erantzukizun-araubidea, berriz, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Printzipioei buruzko Legearen Testu Bateginaren 64. artikuluan ezarritakoa izango da.

#### AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA.– Ordezko araubidea.

Agindu honetan berariaz ezarrita ez dagoen guztian, honako hauetan jasotako xedapenak izango dira aplikagarriak: Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean, eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Printzipioei buruzko Legeko Testu Bategina onetsi duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuan.

#### AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA.– Errekurtsoak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango zaio Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuari, hilabeteko epean, jakinarazpena egiten denetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Herriko Justizi Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

#### AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA.– Eraginak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 5a.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburua,  
ANA ISABEL OREGI BASTARRIKA.

## I. ERANSKINA.

## I.A.– Jarduketa zehatzak.

Diru-laguntza jaso dezaketen jarduketen zerrenda. Gutxienez, bi ekintza izan behar dira: bata I.A.1. eranskinekoa, eta, bestea, I.A.2. eranskinekoa:

I.A.1.– Biodibertsitatea kontserbatzeko, berrezartzeko edo hobetzeko jarduketak (diru-laguntzak jaso ahal izateko gutxienez atal honen ekintza bat sartzea derrigorrezkoa da).

– Egun izapidetzen ari diren Natura 2000 Sareko Kontserbazio Gune Berezien (KGB) kontserbazio neurriak dituzten agirietan barne diren jarduketak, izan onartutakoak edo egun izapidetzen ari direnak.

– Mehatxatuta den flora edo fauna basatia kontserbatzeko jarduketak, komunitate edo eskualde mailan.

– Hostozabal autoktonoen espezieek eraturiko basotxoak ezartzea, suspertzea edo hobetzea. Aurretik den zuhaitza aloktonoa aldatzeko eta europar edo lurralde interesa duten habitat-en kontserbazio egoera hobetzeko, edota EAEn lehentasun interesa duten espeziek hartzeko ahal-menerako jarduketei lehentasuna emango zaie.

– Ekotonoak sortzea, bai baso-basen ertzean, bai larredien ertzean, orla zuhaitz edo zuhaixkak landatuta.

– Urbazterreko basoen azalera handitzea, babes edo kontserbazio helburuekin, oraingo basotxoak euren artean konektatu ahal izateko.

– Landaredia babesleak eta/edo ibaiertzeko landaredia landatzea (haltzadi, lizardi, sahasi edo zumardiak), gutxienez 10 metroko zabalerakoak, ur ibilguen babes bandetan, edonon direla (belardiak, labore-lurrak, basoak, bide ertzak). Horren barruan, eukalipto eta pinu landaketetako lehenengo 10 metroak (gutxienez) urbazterreko baso bihurtzea sartzen da.

– Baso-orbanei eta landazabaleko zonei loturiko putzuak eta hezeguneak instalatzea.

– Gune hezeak suspertzea edo berreskuratzea, hezeguneei loturiko eremuetan edo hezegune bihurtzeko aukera duten eremuetan, esate baterako, eremu endorreikoetan, troketan, depresioetan, eta abar.

– Ekosistema autoktonoen osotasunerako mehatxu direla egiaztatutako espezie exotiko inbaditzaileak ezabatzea.

– Baso bideak kentzea, bertako espezien urraketa eta landaketaren bidez.

– Leize eta kobazuloetan harlankaitz hornez mugaketa itxidurak ezartzea.

– Hesi biziak sortzea dagokionean bertako espeziek erabiliz, kasuan kasu, atlantiko edota mediterraneoko giroetakoak.

– Lehorreko laboreen artean berriz hazitako ildarteak egitea, giro mediterraneotan.

– Ureztatze-putzuak fauna basatiaren kontserbazioarekin bateragarri egitea. Itxidurak iraztezinak eta arantza harizkoak itxidura bigunez aldatzea. Espezieak putzu eta kanpora arteko bide askea izatea errazten duten elementuak ezartzea.

I.A.2.– Jarraipen jarduketak (diru-laguntzak jaso ahal izateko gutxienez atal honetako jarduketa bat sartzea derrigorrezkoa da).

- Lur-zaintzailtza akordioaren barruen diren biodibertsitatearen elementuen zerrenda egitea.
- Egitasmoaren helburu eta ekintzen jarraipen eta ebaluazio plangintza.
- Salbuespen gisa, jarraipenerako edota zerrendetarako datuak lortzeko ekipamendua erostea, beti ere egitasmoaren ekintzak aurrera eramateko nahitaezkoak direla erakusten bada.

I.A.3.– Komunikazio-jarduketak (zerrenda orientagarria).

– Egitasmoaren ekintzen eta lurralde zaintzailtza akordioan diren lurren natur balioen gaineko material didaktikoa egitea.

– Seinaleztapena.

I.B.– Baldintza bereziak.

– Ezin izango da batasuneko interesa duen habitat bat beste era bateko formazio batez ordezkatu, birgaituko den habitat berriak kontserbazio balio handiagoa duela egiaztatzen den kasua salbu.

– Erabiliko diren landareek edo haziek bete egingo dituzte indarreko araudiak baso eremuen arloan ezartzen dituen baldintza guztiak, baita bidezko proiektu eta memoria teknikoek ezarritako baldintzak ere. Halaber, jarduketetarako erabilitako landareak bermaturiko jatorri genetikoarekin etortzearen aldeko balorazioa egingo da, eta jatorri hori ahalik eta hurbilena izango da jarduketaren eremutik.

– Landareen adina eta gutxieneko dimentsioak, eta baita landaketaren trinkotasuna aurkezturiko proiektuan edo memoria teknikoan adierazita egongo dira. Ale gazteen landaketa trinkoak erabiltzea gomendatzen da.

– Ubideen ondoko lurretan egin beharreko suspertzeetarako laguntzak jasotzeko, beharrezkoa da gutxienez lehenengo bost metroak birlandatzea, ubidearen bi aldeetan, ibai ertzaren ondoan, inguruko landaredia naturaleko baso espezie erripikolekin, eta gainera, errespetatu egin behar da lehendik dagoen landaredia autoktonoa.

– Mediterraneo isurialdeko eta aroko ur jarioarekin eta nekazal matrizean sartuta diren erreka-txo txikietako ertzetan birlandatze jarduketetan, landaketa gutxienezko dentsitatea honako hau izango da: 1.500 landare/ha 1-2 sapa. Espezieen % 5-10 eremuko zuhaitzak izan beharko dira, gainerakoak zuhaixkak, nagusiki arroso eta elorriak. Ur erabilgarritasunaren mantenua bermatu behar da.

– Espezie exotiko inbaditzaileak kentzeko jarduketetan, erabiliko den metodologiak inguruko ekosistemen eta biodibertsitatearen beste elementuengan inolako afektaziorik ez izatea bermatu beharko du.

– Putzuak eta hezeguneak instalatzeko ekintzetan gutxienezko edukiera azalerako 50 m<sup>3</sup> eta 50 m<sup>2</sup>ak gaintu beharko du. Ertzetako malda % 5-10 baino beheragokoa eta perimetroaren ¼ landarerik gabekoa izango da. Putzuen ertzen 2/3ek 30-40 m-tako sakonera gutxienez izan beharko dute ertzetik 3 m arte. Eremuko abeltzaintza zama UGM1ekoa baino goragokoa denean, putzura sartzeko mugaketak ezarri beharko dira.

– Leize eta kobazuloetan harlankaitz hornez mugaketa itxidurak ezartzeko, itxidurak gutxienez leize edo kobazuloko ahotik 15 m-tara ezarriko dira. Hormek 1 eta 1,30 m-tako altuera eta gutxienezko 70 cm-ko zabalera izan beharko dute. Agiriko aldea lehorrean izan beharko da. Azpiko aldean 30 cm-ko altuera eta 50 cm-ko luzera duten hutsuneak utziko dira, hormaren irazkortasuna bermatzeko fauna basatiari.

– Ureztatze putzuak fauna basatiarekin bateragarria egiteko, putzuaren perimetroko azaleraren erdia eta hiru laurden birlandatu beharko da, bertako espezieekin. Gutxieneko dentsitatea 1.500 landare/ha-koa izango da, eta gutxienez % 5 inguruko bertako zuhaitz espezieak izan beharko dira.

– Sortzeko hesi biziak bi eta lau metro arteko zabalera izan beharko dute, landaketa gutxieneko dentsitatea 900 landare/ha-ko 1-2 sapetakoarekin, eta gutxienez % 10 eta 15 bertako zuhaitz espezieak izan beharko dira.

## II. ERANSKINA

## ESKABIDE INPRIMAKIA (pertsona juridiko pribatuak)

Ingurumen eta Lurralde Politika sailburuaren 2013ko ekainaren 5eko Aginduaren babesean emandako diru-laguntza; agindu horren bidez, EAEn, lur-zaintzailtza barne hartutako ondare naturala kontserbatzeko jarduerak finantzatzeko laguntzen 2013rako deialdia egiten da.

Erakundearen izena: .....

Ordez kariaren izen-abizenak eta NAN: .....

Identifikazio fiskala: .....

Helbidea: .....

Herria: ..... Posta kodea: ..... Lurralde historikoa: .....

Telefonoa: ..... Faxa: ..... E-maila: .....

Eskatutako diru-laguntza: .....

Erantsi heharreko dokumentutak:

Eskatzailearen NANaren eta dagokion ordezkapen ahalordearen kopia, baita identifikazio fiskalaren kopia eta erakundearen estatutuen eta haien aldaketen kopia ere. 2012ko ekitaldiko jardueren memoria, erakundeak onartutakoa, eta irabazi-asmorik gabeko erakundea dela egiaztatzeko euren xedearen definizioa edota beraien xedea egiaztatzen duen beste edozein agiriren kopia.

Memoria deskribatzailea. Bertan, ondo zehaztuta honako hau jaso beharko da: lur-zaintzailtza akordioaren edukia (honen kopia erantsiko da), akordioaren iraupena, helburuak, jarduerak egingo diren tokiaren mugaketa eta planoak, epeak, ekintzaren hedapen eta garapena, jardueraren aurrekontu osoa, (partidaka zehatuta, V. eranskinaren arabera) eta jarduera betearazteko egutegia.

Beharrezkoa denean, udaleko hirigintza lizentzia egokia eta, behar izanez gero, sektorekako Administrazio eskudunaren manuzko baimen edo lizentzia.

Beste pertsona edo erakunde batzuek helburu horretarako emandako beste diru-laguntza batzuen zenbatekoen adierazpena (halako diru-laguntzarik egonez gero, IV. eranskinaren arabera).

Ogasun eta Gizarte Segurantzaren betebeharrak bete diren egiaztagiria.

Eskatzaileak aditzera emango du eskabide honekin batera datorren dokumentazioaren barruko datu guztiak egiazkoak direla, diru-laguntzak bete gabeko gastuari aurre egiteko finantza-gaitasun nahikoa duela eta bete egiten dituela deialdian ezarritako baldintza guztiak.

Halaber, diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera kenduta zigortuta edo zehatuta ez dagoela ere adieraziko du, eta horretarako gaitasuna kentzen duen legezko debekuren batean sartuta ez dagoela ere bai.

Hortaz, aipaturiko aginduan ezarritakoaren arabera, finketan eskabidearekin batera datorren dokumentazioan adierazitako aurrekontuen arabera jarduerak egiteko laguntza jasotzeko eskabidea egiten du.

..... n, 2013ko ..... ren ..... an.

Sinatuta:

Eskatzailearen edo horren ordezkariaren sinadura

## III. ERANSKINA

**DATUEN ALTA / DAGOKION HIRUGARRENA****A****HIRUGARRENA IDENTIFIKATZEKO DATUAK**

- (1) NAN / IFK .....
- (2) Izena eta bi abizenak / Sozietatearen izena  
 .....  
 .....  
 Helbidea .....
- Posta-kodea ..... Herria .....
- Lurraldea ..... Herrialdea .....

**B****BANKUAREN DATUAK**

- (1) Bankua
- (2) Agentzia
- (3) K D                     K/Korronea
- (4) Jabea .....

OHARRA: Kontu korrontearen jabeak doakion hirugarrena bera behar du izan.

**C**

Bankoaren adostasuna

Sinadura eta zigilua

**D**

Dakion hirugarrenaren adostasuna

Sinadura eta zigilua

**E**

Edo Erakundearen onespena

Sinadura eta zigilua

Data: ..... / ..... / .....

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Ekonomia eta Ogasun Sailak jakinarazten dizu, dokumentu honen bitartez jarri dituzun zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu baten sartuko ditugula, ondoren, erabili ahal izateko.

Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Ekonomia eta Ogasun Saileko Zerbitzu Zuzendaritza, Donostia kalea 1; 01010 Vitoria-Gasteiz.

## INPRIMAKIAK BETETZEKO JARRAIBIDEAK

A: Pertsona fisiko edo juridikoa identifikatzeko datuak, ondoren adierazten denaren arabera.

1.– Pertsona fisikoa: NAN, AIZ edo pasaportearen zenbakia.

Pertsona juridikoak: identifikazio fiskaleko kodea.

2.– Pertsona fisikoak: izena eta bi abizen.

Pertsona juridikoak: izena edo izen soziala.

B: Banku-datuak.

1.– Bankuaren kode eta izena.

2.– Agentziaren kode eta izena.

3.– Titularrak bankuan duen kontuaren kontrol digitua eta zenbakia adieraziko da.

4.– Izena eta bi abizenak, pertsona fisikoen kasuan, eta izena edo izen soziala, pertsona juridikoen kasuan.

Kontu korrontearen jabeak doakion hirugarrena bera behar du izan.

C: Bankuaren sinadura eta zigilua, bankuaren datuak ziurtatzeko.

Banku-erakundearen sinadura eta zigiluaren ordeztu, hirugarren interesduna banku-kontuaren titularra dela dioen bankuaren agiria erabili ahal izango da.

D: Doakion hirugarrenaren sinadura eta zigilua, agirian azaltzen diren datuak zuzenak direla ziurtatzeko.

E: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak betetzeko.

## DOKUMENTAZIO EUSKARRIA

Kasuan kasuko fotokopia erantsiko da:

– Nortasun agiri nazionala (NAN).

– Atzerritarraren identifikazio-zenbakia (AIZ), atzerritarrak bizitokia bertan badu.

– Pasaportea, atzerritarrak bizitokia bertan ez badu.

– Identifikazio fiskaleko txartela, pertsona juridikoa bada.

## IV. ERANSKINA

## PROIEKTU HONETARAKO ESKATU EDO JASO DAITEZKEEN DIRU LAGUNTZEI BURUZKO ZIURTAPENA

..... jaunak/andreak  
 ..... erakundearen legezko ordezkariak  
 .....  
 ..... proiekturako

ZIURTATZEN DU (behar dena bete):

- Erakunde honek EZ duela eskatu edo jaso inolako diru-laguntzarik proiektu honetarako.
- Erakunde honek EZ duela aurreikusi diru-sarrerarik lortzerik proiektua egitetik, ez eta sarrerak, aleak edo bestelakoak saltzetik, nahiz publizitatetik, matrikulazio-kuotetatik edota bestelako kontzeptuetatik ere.
- Erakunde honek diru-laguntzak eskatu edo jaso dituela proiektu honetarako.

Erakunde publikoa	Eskatutako zenbatekoa	Jasotako zenbatekoa

- Erakunde honek proiektu hau egiteagatik honako diru-sarrera hauek lortzea aurreikusi duela:

Kontzeptua	Utate-prezioa	Unitate-kopurua	Guztira

Eta, dagozkion ondorioetarako hala jasota gera dadin, aitopen hau sinatzen dut

..... (e)n, 2013ko ..... aren ..... e(a)n.

Legezko ordezkariaren sinadura

2013ko ekainaren 18a, asteartea

V. ERANSKINA  
DATU EKONOMIKOAK

## A) Behin betiko diru-sarrerak:

Jatorria	Zenbatekoa
Guztira	

## B) Behin betiko gastuak:

	Kontzeptua	Zerga-oinarri	BEZa	Guztira
Bestelako gastuak				
	Bestelako gastuak, guztira			
Langile-gastuak				
	Langile-gastuak, guztira			
Inbertsioak				
	Inbertsio gastuak, guztira			
Gastu orokorra				
	Gastu orokorrak, guztira			
Guztira				